

SASC Irati proiektuaren akabera

Proiektuan aritu diren lau ibarrek (Zaraitzu, Aezkoa, Garazi eta Zuberoa) eductour turistiko bat egin dute abenduak 16, asteazkena, era telematikotan Iratiko lurraldean diren turismo-baliabideak ezagutzera emateko, bai eta proiektuan garatutako jarduketak azaltzeko ere. Proiektua 2020ko abenduaren 31n bukatuko da.

Ekitaldia Iratiko Txaletetan egin da, Zuberoan, eta bertzeak bertze, hainbat arduradunek parte hartu dute. Hona hemen haietako batzuk: Henry Inchauspe Garaziko presidentea, Jacques Barreix Zuberoako presidentea, David Tourreuil Garaziko Sindikatako arduraduna eta Josy Arrossagaray Iratiko Txaletetako arduraduna. Horiez landara, bertze batzuk telematikoki aritu dira: Coralie Artano EHMEBeko teknikaria (Euskal Herriko Mendi Elkargoen Batasuna), Gonzalo Celay Zaraitzuko presidente ohia, eta Pedro Mascaray egungo presidentea, Karlos Bueno Aezkoako presidentea, Otsagabiko Turismo Bulegoa eta Cederna Garalur.

Lau ibarretako presidentek ontzat jo dute proiektua, denen artean egindako lana nabarmenduta, bai eta urteotan batzuen eta bertzeen sortutako harremana ere, bisitariak eta turistek Irati ezagutu eta berrezagutu dezaten erdieste aldera.

SASC Irati proiektua

“Oihanen oihana” proiektuaren mugaz gaindiko esperientzia onaren ondotik, Zuberoako eta Garaziko Sindikatak (Akitania Berria) eta Zaraitzuko nahiz Aezkoako Batzarrak (Nafarroa) POCTEFA SASC Irati Europako proiektuari lotu zitzaizkion. Mugaz gaindiko proiektu hori 2015etik 2020ra garatu da. Helburu nagusi bat izan du, hots, Iratiko natur baliabideen kudeaketa bateratuan aitzinapausoak ematea, hau da, mikologian, oihangintzan, artzaintzan eta turismoan, Irati lurralde paregabea izan dadin, batetik, turisten isuria ibar guztien artean sustatze aldera, eta bertzetik, Iratik urtaro guztietan dituen erakrpen guztiak ezagutze aldera, muga geografikorik gabe.

Proiektua, halaber, baliagarria izan da Irati markari are ikusgaitasun handiagoa emateko, ekoturismoan oinarritutako eskaintza zabala eta askotarikoaren bidez, bai egungo turismo produktuak eta zerbitzuak hobetze aldera, bai berriak sortze aldera. Hori guztia erdiesteko, hainbat arlo osagarri landu dira, hala nola oihaneko mikologia, artzaintza, hegaztien migrazioa, industria eta kultur ondarea, ingurumena eta naturako kirolak.

Azpiegitura berriak

Proiektuak lau ibarren arteko lan koordinatua eta osagarria sustatu badu ere, eskualde bakoitzak hainbat azpiegitura sortu eta berritu ditu.

Garazi, adibidez, mendiari eta artzaintzari dago estuki loturik, eta Etxola deitu zentroa jarri du abian 2020ko udaberrian, hau da, artzaintza zer den erakusteko leku bat, Garaziko artzain transhumanteen bizimoldea ezagutzeko eta mendiko gazta nola egiten den jakiteko. Zehazki, erakusketa bat paratu eta kaiolar bat birsortu da, hau da, artzain-etxola edo artzain-borda bat. Halaber, bi BTT ibilbide sortu eta seinalezatu dira, Zaraitzun eta Aezkoan direnen osagarri. Era berean, bizikleta elektrikoan ibiltzeko ibilbide bat sortu da Iratiko Txaleten hasieran.

Zuberoan, berriz, ornitologia-zentroa berritu da, Iratiko Txaletetan kokatua. Hegaztien migrazioari buruzko informazioa ematen du, bai eta jarduera entretenigarriak egin ere, eta jendea hegaztien gainean sentsibilizatzeko tresnak ere sortu dira (egutegi bat, hegaztiei buruzko liburu bat; eta hegaztiendako janari-tokiak paratu dira Iratiko Txaletetan). Era berean, osasun instalazioak eta kanpineko harrera etxea berritu dira, bai eta karabanendako drainatze eremu bat ere.

Zaraitzun aparkaleku berri bat sortu da Iratiko Etxeetatik hurbil, turisten eta bisitarien eskariari erantzuteko, eta bi aterpe zaharberitu dira Irati barneko azpiegiturak hobetzeko. Horrez gain, Errekaidorra izeneko ibilbidea mantentzeko lanak egin dira, hau da, mugaz gaindiko ibilbide erraza da eta hainbat azpiegitura paratu dira oihangintza nolakoa zen erakusteko.

Aezkoan, azkenik, Orbaizetako Arma Ola moldatzeko lanak egin dira, erakusketa eta informazio-gune berri bat paratzeko asmoz. Halaber, Aezkoako BTT ibilbide guztiak balizatu dira; hori turismo eta kirol baliabide egokia da, Iratiko BTT ibilbide sare zabala eta askotarikoa osatzeko.

Ekintza bateratuak

Iratiko turismo eskaintza ezagutzera emate aldera, komunikazio-tresna bateratuak garatu eta landu dira, hala nola www.irati.org webgune berritua, sare sozialetan edukiak zabaldu dira (Facebook eta Twitter), Iratiri buruzko APP berri bat; Iratiko mapa berriak, auto eta motoendako ibilbide zirkularrak proposatuta; eta berariazko mapa bat BTT ibilbideetarako. Halaber, naturari eta historiari buruzko bi foileto, aldizkari bat eta bertzelako materialak, guztiak ere euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez argitaratuak.

Era berean, seinale berriak paratu dira lurraldeari batasuna emateko. Horrela, panelak ezarri baitira Iratin sartzeko ateetan, bai eta informazio orokorra emateko panelak ere. Proiektu bat bultzatu da ziza eta onddoen balorizazio turistikoa lantzeko; ez, ordea, ziza-bilketa sustatzeko. Hau da, haien dibertsitatea ezagutzera emateko jardueren antolaketa sustatu nahi izan da, edota zuhaitzekin duten harremana erakusteko, eta nutrizioan duten balioa ere bai. Halaber, bilera eta topaketa sorta ederra antolatu da Unescok izendatutako Biosferaren Erreserbetan zer esperientzia izan diren ezagutzeko, edota artzaintzari eta oihangintzari buruzko esperientziak elkarri trukatzeko, edota Pirinioez bi aldeetako ikastetxeekin lantzeko, etab.

Proiektuaren aurrekontua, guztira, 2.273.108 eurokoa izan da: Garaziko Sindikata (980.781 euro), Zuberoako Sindikata (494.640 euro), Zaraitzuko Batzarra (288.640

euro) eta Aezkoako Batzarra (509.048 euro). Europako EGEF funtsek aurrekontuaren %65 ordaindu dute, POCTEFA programaren bidez, eta bertze erakunde publiko batzuek ere dirua eman dute, hala nola Nafarroako Gobernuak, Zaraitzu eta Aezkoarako, eta Akitania Berriko Eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuak, Garazi eta Zuberoarako.